



DEBAko UDALA

2017SPLE0006  
6. BILERA: OHIKOA 2017-06-29

## Udalbatzarraren bilkura-akta

**Bilkura:** arauz deitutako ohizko Udalbatzarra

**Zenbatgarrena:** seigarrena

**Eguna:** 2017/06/29

**Hasiera-ordua:** 19:30

**Amaiera-ordua:** 20:15

**Onarpen-eguna:** 2017/07/27

### **Bertaratutako zinegotzi hautatuak:**

PEDRO M<sup>a</sup> BENGOETXEA LOIOLA

AITOR SALEGI IRURETA

ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA

M<sup>a</sup> LUISA ALBIZU BEITIA

IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA

MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN

AIMAR LASA URKIRI

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN

MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA

CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE

IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA

UNAI LEKUBE ARANBERRI

ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

### **Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:**

### **Bertaratzeak eta irteerak:**

### **Gora-beherak**



## DEBAko UDALA

### **Aztergaiak:**

1. Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2017/05/25).
2. Elizburuko 1 sektorean, 3. partzelan lehenengo zozketa egin ondoren esleitzeko geratu diren Babes Publikoko Udal Erregimen Tasatuko 3 etxebizitzan (eta dagozkien atxikitutakoak -trasteleku eta garajeak) zozketa arautuko duten oinarriak onartzea.
3. Udalen eta Izenperen artean hitzarmena sinatzeko proposamena, Udalak erregistro-erakunde gisa funtziona dezan B@kQ identifikazio sistema elektronikoak igortzeko.
4. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Debako Udalaren arteko Lankidetzahitzarmena, informazioaren, administrazioaren, eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko.
5. Alkatetza Dekretuen berri ematea.
6. Eskariak eta galderak.

### **Esan-eginak eta erabakiak**

#### **1.- Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2017/05/25)**

2017ko maiatzaren 25eko bilkuraren aktari zuzenketa bat egin zaio, izan ere, 5. puntua lantzeko orduan Aimar Lasa zinegotziak azpimarratu nahi izan zuen proiektu osoa onartzen zela eta horrek nahi duela esatea landuko dela ez bakarrik Gerra Zibila eta Lehenengo Frankismoa, 1945 osteko urteen lanketa barneratzen duela proiektuak. Aktan ez da behar bezala jasota geratu proiektua bere osotasunean garatuko dela eta, ondorioz, argi utzi nahi izan du.

Zuzenketa hori eginda, bozkatu egin da eta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotziak bilkuran direla.

**2.- Elizburuko 1 sektorean, 3. partzelan lehenengo zozketa egin ondoren esleitzeko geratu diren Babes Publikoko Udal Erregimen Tasatuko 3 etxebizitzan (eta dagozkien atxikitutakoak -trasteleku eta garajeak) zozketa arautuko duten oinarriak onartzea.**

#### ***Aurrekariak***

Debako Elizburuko 1 sektorean, 3. partzelan Babes Publikoko Udal Erregimen Tasatuko 33 etxebizitza eta atxikitutakoak (trasteleku eta garajeak) ari dira eraikitzen.

2015eko otsailaren 26ko Udalbatzarraren saioan onartu ziren Debako Elizburuko 1 sektorean, 3. partzelan Babes Publikoko Udal Erregimen Tasatuko 21 etxebizitzan eta atxikitutakoak (trasteleku eta garajeak) zozketa arautuko zuten oinarriak.



## DEBAko UDALA

2015eko urriaren 29ko Udalbatzarraren saioan onartu zen Debako Elizburuko 1 sektorean, 3. partzelan Proiektatutako Babes Publikoko Udal Erregimen Tasatuko 33 etxebizitzak eta atxikitutakoak (trasteleku eta garajeak) zozketa arautuko zuten oinarrien aldaketa puntuala, Plan Partzialaren bigarren aldaketa puntualaren behin betiko onarpenaren ondorioz.

2015eko abenduaren 12an zozketa egin zen eta oinarrietan finkatutako jardunbidea jarraitu ondoren 3 etxebizitza eta atxikitutakoak (trasteleku eta garajeak) geratu dira esleitzeke eta erabaki da horien esleipena zozketa bidez egitea eta ondorioz zozketaren oinarriak onartzea eta deialdia egitea.

Deialdi honen helburua da, beraz, babes publikoko udal erregimen tasatuko 3 etxebizitza, beren atxikitutakoekin, jabetzan eskuratzeko zozketarako baldintzak jartzea.

Etxe-sustapena "Proteisa 2002 S.L. merkataritza sozietatea garatzen ari da.

Etxebizitza horiek trasteleku eta garajea atxikita dute eta, beraz, etxebizitza erostean atxikitutakoak ere erosten dira; ezin izango dira, hortaz, aparte eskualdatu.

Logela bateko etxebizitzak: 2

- Prezioa BEZ kanpo: 136.915€
- Etxebizitza: atartea 1-A-goiatikoa.
- Garajea eta trastelekua: G16-T16.
- Prezioa BEZ kanpo: 113.000€
- Etxebizitza: atartea 2-C-atikoa.
- Garajea eta trastelekua: G4-T4.


Bi logelako etxebizitza: 1

- Prezioa BEZ kanpo: 120.970€
- Etxebizitza, atartea 1-C-1º solairua.
- Garajea eta trastelekua: G22-T22.

### ***Erabakia.***

Aurrekarien berri izanda, legezko hamahiru kideak bilkuran direla, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, horretarako aintzat hartu da Hirigintza eta Etxebizitza batzorde informatzailearen proposamena:

***Lehenengo.-*** Elizburuko 1 sektorean, 3. partzelan lehenengo zozketa egin ondoren esleitzeke geratu diren Babes Publikoko Udal Erregimen Tasatuko 3 etxebizitzak (eta dagozkien atxikitutakoak -trasteleku eta garajeak) zozketa arautuko duten oinarriak onartzea eta deialdia egitea.



## DEBAko UDALA

**Bigarren.-** Oinarrien testua Udaleko iragarki oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**3.- Udalen eta Izenperen artean hitzarmena sinatzeko proposamena, Udalak erregistro-erakunde gisa funtziona dezan B@kQ identifikazio sistema elektronikoak igortzeko.**

***Erabakia.***

Hitzarmen proposamenaren berri eduki ondoren Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru zinegotziak bilkuran direla:

**Lehenengo.-** Debako Udalaren eta Izenperen artean hitzarmena sinatzea, Udalak erregistro-erakunde gisa funtziona dezan B@kQ identifikazio sistema elektronikoak igortzeko.

**Bigarren.-** Alkateari ahalmena ematea Udalbatzarraren izenean hitzarmena sinatzeko.

**4. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Debako Udalaren arteko Lankidetzeta-hitzarmena, informazioaren, administrazioaren, eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko.**

***Erabakia.***

Hitzarmen proposamenaren berri eduki ondoren Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru zinegotziak bilkuran direla:

**Lehenengo.-** EAEko Administrazioaren eta Debako Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena sinatzea, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko.

**Bigarren.-** Alkateari ahalmena ematea Udalbatzarraren izenean lankidetzeta hitzarmena sinatzeko.



## DEBAko UDALA

### 5.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Idazkariak informatu du ondorengo Dekretu hauek eman dituela Alkateak:

55	2015/05/24	Gizarteratze zerbitzua emateko kontratua esleitzea.	
56	2017/05/24	Udal erroldan baja ematea.	
57	2017/05/25	Elizburuko a.300.3 partzelako obretan egun batzuk baliogabe deklaratzeko eskaera. Proteisa 2002, S.L.	2014SETX0001
58	2017/05/25	Hondartza kaleko arkupeak.	
59	2017/05/26	Eguneko Zentroko langile baten lan-baimena ordezkatzeko langile baten kontratazioa 2017ko maiatzaren 29an.	
60	2017/05/26	Bitarteko funtzionarioa izendatzea, udaltzain gisa, 2017ko maiatzaren 27tik urriaren 6ra.	
61	2017/06/01	Bitarteko funtzionarioa izendatzea, udaltzain gisa, 2017ko ekainaren 1etik urriaren 11ra.	
62	2017/06/01	Bitarteko funtzionarioa izendatzea, udaltzain gisa, 2017ko ekainaren 1etik urriaren 11ra.	
63	2017/06/01	Bitarteko funtzionarioa izendatzea, udaltzain gisa, 2017ko ekainaren 1etik urriaren 11ra.	
64	2017/06/01	Bi OTA zaindarien kontratazioa 2017ko ekainaren 1etik irailaren 26ra.	
65	2017/06/02	Turismo bulegorako administrari laguntzaile baten kontratazioa 2017ko ekainaren 2tik urriaren 1era.	
66	2017/06/02	Liburutegiko langile baten oporrak ordezkatzeko langile baten kontratazioa 2017ko ekainaren 5etik 9ra.	
67	2017/06/02	Eguneko Zentroko langile baten oporrak ordezkatzeko langile baten kontratazioa 2017ko maiatzaren 26tik ekainaren 5era.	
68	2017/06/02	Bide publikoan terraza eta mahai-tokiak jartzeko baimena ematea.	2017PMVE0001- 2017PMVE0022
69	2017/06/08	Eguneko Zentroko langile baten gaixotasun-baja ordezkatzeko langile baten kontratazioa 2017ko ekainaren 8tik aurrera.	
70	2017/06/08	Debako hirigune historikoaren birgaitzearen plan bereziaren 2. aldaketaren lehen onarpena San Roke 1-3 eta Lersundi 13. Ekimen pribatua.	2017NNSS0002
71	2016/06/09	Lizentzia gabe edo dagozkion zehaztapenak jarraitu gabe egindako lanak. Berraztertze helegitea. Saka.	2017URES0002
72	2016/06/12	Egikaritze-agindua espedienteari hasiera ematea eta entzunaldia ematea. Miramarreko orubea.	
73	2016/06/xx	Udal Erroldan baja ematea.	
74	2017/06/15	Obra eta Zerbitzuetan lan pilaketa dela eta langile bat kontratatzea 2017ko ekainaren 16tik abuztuaren 31ra.	
75	2017/06/21	Ifarkale 14ko Bañez Etxea finkaren enkante publikoa.	
76	2017/06/22	Mecanizados WEC enpresaren xehetasun azterlana.	2017URLA0005
77	2017/06/22	Liburutegiko langile baten oporrak ordezkatzeko langile baten kontratazioa Ekainak 22tik 30era.	
78	2017/06/22	Brigadan lan pilaketatik langile baten kontratazioa 2017ko ekainaren 22tik abuztuaren 31ra.	
79	2017/06/22	Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren 26.erreziboa ezetzatzea.	



## DEBAko UDALA

80	2017/06/22	Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren 28. erreziboa ezeztatzea.	
81	2017/06/22	Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren 140. erreziboa ezeztatzea.	
82	2017/06/22	Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergan 2014.urtean ordaindu zuena bueltatzeko eskaerari ezezkoa ematea.	
83	2017/06/22	Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergan egindako eskaera partzialki onartzea eta 86, 169 eta 170 erreziboak ezeztatzea.	
84	2017/06/22	Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren 71 eta 72. erreziboak ezeztatzea.	

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.

### 6.- Eskariak eta galderak.

Trenen maiztasuna gehitzeko sinadurak bildu ditu herritar batek eta horren harira egondako bileraren inguruan galdetu du Aimar Lasa zinegotziak.

Alkateak erantzun dio, bilera ondo joan zela eta datorren astean emango dutela erantzuna, horretarako, bilera bat egingo dela eta Imanol Leza bertaratuko dela hartutako erabakiaren azalpena ematera. Alderdi politikoez gain, bilera horretan egotera 1.700 sinadurak biltzeaz arduratu den pertsona ere gobidatua dago.

Maidar Zubikarai gogora arazi du Debegean mugikortasunaren mahaia jadanik eratuta dagoela. Alkateak erantzun dio bilerara Debegeako Balbasekin joan dela hain justu.

Aimar Lasa zinegotziak tren geltoki-egitasmoaren inguruan galdetu du.

Alkateak erantzun dio hiru proiektu daudela proposatuta baina oraindik ez dagoela ezer finkatuta.

Aimar Lasa zinegotziak mahairatu du aurreko Udalbatzarraren saioan banatu zitzaizela kaleetan kartelak jartzea arautuko duen ordenantzaren zirriborroa, ekarpenak egiteko, baina beraien sorpresarako handik astebetera Noticias de Gipuzkoa egunkariak zekarrela “Deba sancionará la colocación de carteles” izenburupean idazki bat. Hau ez zaie egokia iruditu.

Maidar Zubikarai zinegotziak galdetu du, ea zein den udal gobernuaren asmoa, isunak jartzea edo ordenantza lantzea.

Alkateak erantzun die, talde guztiak biltzea posible bada hobe eta prozesu partehartzaile bat egin behar baldin bada egingo dela, baina asmoa dela kaleak kartekez eta paperez josita ez egotea. Hormak zikin daudela dio, horren garbiketan diru asko xahutzen dela eta garbitasun hori denon gauza dela, horregatik abisua eman da erakunde denei.

Aimar Lasak Pertsonala eta Barne Errejimena batzordearen bilera egitea komenigarritzat jo du. Batetik, udal brigadaren egoera aztertzeke, eta bestetik, ireki eta hiru egunetara Koska tabernari jarritako isunaren gaiak lantzeko.



## DEBAko UDALA

Alkateak erantzun dio, batzordearen bilera datorren astean egiteko asmoa dagoela eta aipatutako bi gaien inguruan azalpenak eman ditu.

Aimarrek esan du, Udalbatzarraren hainbat saiotan eskatu izan dutela batzordeen eremutik haratako zinegotzien bilera egitea estrategikoak diren gaiak lantzeko (langileena, aldizkaria, Praileaitz, e.a...).

Azkenik, jaien egun kopuruaren inguruan esan du beste urte batzutan egun kopurua liskarrerako arrazoia izan dela eta zinegotzi guztien artean landu izan dela, baina aurten zuzenean argitaratu dela egun kopurua webgunean.

Jaien egun kopuruaren inguruan Iñigo Cambronero zinegotziak erantzun du, egun kopurua adostua izan dela eta egun bat kentzearen arrazoia izan dela eduki eza eta aurrekontu eza.

Jose Luis Albizuk esan du, Debegesak antolatutako ibilaldiaren inguruan, behin ibilaldia amaituta antolatzaileak erne egon beharko zirela ziurtatzeko inor ez dela geratzen Debara bueltatzeko kotxerik gabe.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

Deban, 2017ko ekainaren 29a



